

Ibilgailua



JUSTIFIKAZIOA

Ibilgailu bat erostea da, oraindik ere, familiek egiten duten erosketa garrantzitsuenetako bat, eta, horregatik, komeni da ibilgailu bat erosten denean informazio guztia edukitzea. Ibilgailuaren ezaugarri teknikoak eta etiketaz gain, badira ezagutu beharko zenituzkeen beste gai batzuk, hala nola aseguruak, bermeak edo konpontzeko eta erregaia hartzeko eskubideak. Ezin ahaztu arduraz kontsumitu behar dugula autoa.

HELBURUAK

- Ibilgailua erostearekin edo alokatzearekin batera doan dokumentazioa identifikatu.
- Autoa eskuratzean edo erabiltzean gatazkarik izanez gero eman beharreko urratsei buruz hausnartu.
- Autoa erosteko eta alokatzeko eskubideak eta betebeharrak ezagutu.
- Ingurumena babesteko zirkulazio-neurri egokiak aplikatu.

EDUKIAK

- Ibilgailua alokatzea.
- Ibilgailua erostea.
 - Berria.
 - Bigarren eskukoa.
- Ibilgailuen konponketak eta bermeak.
- Nahitaezko etiketa eta etiketa energetikoa.
- Erregaia hartzeko eskubideak.
- Autoaren aseguruak.
- Autoaren erabilera zuzena.

ARIKETAK

HASIERAKO FASEA (aurretiko jardura)

- Motorrak berotzen.

GARAPEN FASEA (saioa)

- Auto motak.
- Garantia.
- Ingurumen-bereizgarria eta etiketatze eraginkorra.
- Konponketa, gasolina, aseguruak.
- Kontsumoa murriztea.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (ondorengo jardura)

- Paperak txukuntzen.

OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DISZIPLINAKOAK

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.

ZEHARKAKOAK

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
- Elkarbizitzarako konpetentzia.
- Izaten ikasteko konpetentzia.

METODOLOGIA

- Bakarkako lana.
- Learning by doing.
- Gamifikazioa.
- Erronketan oinarritutako ikaskuntza.
- Lan kooperatiboa.

ANTOLAKUNTZA

IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Ordenagailua, tableta edo gailu mugikorra. Internerako sarbidea.	Taldeak talde txikitan banatuko dira jardura egiteko.	Sesio 1 - 90'

* *Esperientzia Kontsumobideren zentroetatik kanpo garatzen bada, baliabideen erabilgarritasuna jakinaraztea.*

EBALUAKETA

IRAKASLEAK

Ebaluazio inkesta

IKASLEAK

Ebaluazio inkesta